



# ZER

ALDIZKARIA

436. zenbakia  
2017 JORRAILLA

Bizkaitarrei  
Bizkaieraz



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)


**EUSKERAZALEAK**

1967  
2017 **50** URTE

**AITA JOSEBA  
KAMIRUAGA**



Euskerazaleak Alkartearen  
urteko batzar nagusia



# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2016-2017 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

### 49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA

*Bilbaon 2.017n Epaillaren 30ean*



**B**i milla eta amazpigarren urtean Epaillaren 30ean arratsaldeko zazpirak zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza-etxean batzartu ziran.

Batzar onetara, aitatzen diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

### AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi euskun.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa :  
BATZAR NAGUSIA

#### ASIERAN:

**Arratsaldeon euskeran alde  
maite minduz zagozenak:  
Batzar onetan nai doguna da:  
aztertu doguzan gaitzak.**

**Denborak ekartzen dauzan autsak  
astindu nai doguz danak,  
eta garbituz buru-biotzak,  
onartu bide- zuzenak.**

#### 1´go .- IDAZKARIA :

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2016ko agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

#### 2´gn .- 2.015eko DIRU KONTUA:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko moduan etxeko kontuak emongo dautsuedaz. Aurten, igaz emon euskuen antzera be, dirua emoten ba dauskue, egutegia, ikasturtea, ipuin sariketa, web orria, euskal astea ta beste ekintza batzuk egingo dira.

Ekintza orreik egiteko, guk betiko lez % 40´a gure diru kopuritik ipiñi bear dogu.

Eskerrak emon, Aldundiari eta Udalarri.

Eta beste barik datorren urterarte.

**Karmele Fernández (diruzaiña)**

### 3'gn.- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Eta datorren urrengo arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendar-kari lez.

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 2.016n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

### ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

### IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1'go SARIA: Etxebarria'tar Juan Manuel.

2'gn SARIA: Arrien'tar Ziortza.

3'gn SARIA: Legarreta'tar Asier

4'gn SARIA: Merino'tar Palmi.

5'gn SARIA: Onaindia'tar Arene.

### EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren 21'eko. egunetik 25eko egunerarte:

21.- Uranga'tar Erika.

22.- Etxebarria'tar Juan Manuel.

23.- Larrea'tar Anjel.

24.- Barroeta'tar Claudio.

25.- Atutxa'tar Paul.

### TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzarekin.

Diru laguntza eukiten badogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.



Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik, Uztaillarte ez dogu ezer jakingo.

Guk, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu.

Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez-bardiñak izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, Takoa Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko tokira gure takoa eskatzera, baita Elkar eta Labayru´gana be.

Gainera “Takoa bizkaieraz” eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza, Ondarroa, Mungia, Bakio Bermeo e.a.) eta mugako errietan Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Mutriku, Lekeitio, Gasteiz, e.a.

## EUSKERAZALEAK INTERNET´EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 900.000 ikusletik gora euki doguz. Astobiza´tar Jokin´eri ezker.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste ikusle. (Deustu eta Errioxako goi-ikastetxeetatik, baita Madrilleko eta Errioxako goi-ikastetxeetatik be)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baiña “baimenak” bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek or ipintzeko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, “erriko euskerea” izanez gero.



## 6.- IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.

## 7.- “ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Txaloak, irarkolako arduradunai, ZER aldizkaria edertu egin dabelako.

ZER aldizkarian agertzen diran:

- Euskalerriko edestia.
- Kolon IVn Karlos semearen jaio ta bizitza.

Biografietan:

- Arana ta Goiri´tar Sabinorena.
- Humbolt.
- Agirre´tar Txomin.
- Zelaya ta Ibarra´tar Adrian.
- Zubikarai´tar Augustin.
- Mañarikuua´tar andres.
- Zipitria´tar Elvira.
- Arzelus´tar Amale, eta abar luze bat.

Jendekuntz arloetan:

- Gandiaga´tar Bitorianeren olerkiak.
- Bizkai Irradia.
- Garmendia´tar Txominen bertsoak.
- Abesti oiak.
- Utsak (euskaldun barrientzat).
- Margoak, argazkiak, irudiak





Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu diruaren ordainik artu, gitxik ordaintzen dauelako BBK'ko gure aurrezki gutunean.

Eskerrak Foru-Aldundiari, bere laguntza-gaitik.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke era onetara:

- Bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- Ekonomi arloan eskua luzatuz.
- eta diru biltzaleak aurkeztuz.

## ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

**LENDAKARIA.**– Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio.

**LENDAKARI ORDEA.**– Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki.

**IDAZKARIA.**– Atutxa eta Agirre´tar Paul.

**DIRUZAIÑA.**– Fernandez eta Ruiz de Eskide´tar Karmele.


**MAIKOA.**– Arrieta ta Goya´tar Begoñe.

**MAIKOA.**– Arrieta ta Goya´tar Koldobike.

**MAIKOA.**– Astobiza ta Uriarte´tar Jokin.

**MAIKOA.**– Arrieta ta Goya´tar Itziar.





Ontzat artu ziran batzarkide guztien aldetik, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izategaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

### **GALDE-ERANTZUNAK:**

Aurten gogoratu egin bear izan doguz Zubikarai'tar Beatriz, Zearra'tar Begoña, Kobo'tar Jenaro eta Rebi-lla'tar Enrike gure bazkide izanekoak.

Ez ziran egon galde-erantzunik, poz aldiko solasketa baten amaitu gendulako batzarra.

### **AMAIERA:**

Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeiñi euskun:



## **Amaiera**

**Poztasun andiz ikusi dogu  
euskera dala kirtena,  
eguneroko jardunaldian,  
dabilgun mailluarena.**

**Emon daiogun, ekin eta ekin,  
maillukada gogorrenak,  
goaz, azkenengo arnasean,  
euskel-talkarik obena.**

Beste barik eta gaueko zortzirak zirala,  
batzarra amaitutzat emon genduan.

*Klaudio*  
*Barroeta Amorrortu*  
**LENDAKARIA**

*Paulo*  
*Atutxa Agirre*  
**IDAZKARIA**


# AITA JOSEBA Kamiruaga

Aita Joseba Kamiruaga Mieza, c.m.f.


2.017ko Otsaillaren 3an izan zan izendatua Klaretarren Idazkari Nagusitzat, Klaretarren Anaidi Goi-Nagusiaren aginduz.

Joseba Kamiruaga Mieza Jauna, 1.965ren Dagonillako 6an.jaio zan Bizkaiko Las Arenas deritxon errian. Klaretarren artean lenengo zinitza osatu eban 1984ko Iraillaren 2an. Betirako zinitza, barriz, 1989ko Abustuaren 15an. Apaiztu zan 1992ko Maiatzaren 3an.

Euskalerriko Erki Nagusi lez 2.005tik 2.015raño iraun eban.







Euskaldun barria izanez gain, gai izan da ta da euskera jatorrean berba egiteko eta dagozkion agiriak idazteko. Erroman, Unibersidade Gregoriana lortu eban Teologia Dogmatikako Dotoresia.

Teologiako Batxilleratoa osatu eban Deustuko Unibersitatean.

Ainbat Ikastetxetako irakastaldietan lan egingakoa da. Erki Buru izateak eskatu dionez Euskalerriko klaretarrak Bolibia ta Perualdean dabezan mixio etxe-parroki ta anaikideak bein baño geiagotan bisitatu dauz.

Gaurkoz izkuntza oneik mendertzen dauz: Lartera, Italiara, Euskera, Gaztelania eta Ingelera.

Ez dau baztatu euskal kultura, baizik babesadimon dautse bere inguruan egon diran euskal taldeei. Adibidez EUSKERAZALEAK izenekoari.

GogoonezbaimenduebangauregunZUZENDARITZA daroan klaretarrari. Illero jasotzen dau talde onetan argitararzen dan ZER aldizkarian.

Bidezkoa da, pozez zorionak emotea izentapenbarri onegaitik. Goiko Jaunak aberastu dagiala bearezko dabezan buru argitasun eta osasunegaz.

**EUSKERAZALEAK**

2.017/02/15

## Zeinek arinen Ziortza Arrien (Loredi)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2016eko sari leiaketa. bigarren saria


Iñaki langelako erlojuari begira dabil lotu barik. Azken alditik ordu bete pasa dalakoan dago, baiña oraindiño amar minutu besterik ez dira igaro. Begiak ixtera joakoz. Ezin dau geiago jasan, loak artuko dau. Ordenagailluko tekladua alde batera egiñez eta laskituta daukazan paperak egal baten jarriz, maia librau, bere gañean besoak gurtzatu eta euren gañean burua ipintzeko esetzi gogorra dauka. - Ori izango zan langillearen itxurea! - diñotso bere barrutik aots agintzaille batek eta beingoan maia txukuntzen asi da Iñaki. Bost minututan bizkor ibilli ondoren, Iñaki barriro dago Morfeoren besoetan jausteko arriskuan. - Ordutxu bete, ordutxu bete, besterik ez, Iñaki, eta amaituko dozu gaurko lanaldia eta bazoaz! - errepikatzen deutso Iñakik bere buruari eten barik, izartuta mantentzeko naian.

- Eldu da atzenean etxerako ordua! Sasoia izan da! - diño Iñakik bere barrutik. Lantokiari urrengo egunera arte agur esanez eta irribarretsu, badoa atetik urteten Iñaki. Baiña irribarreak ez deutso luzaroan iraungo ezpañetan. Bulegoan gogaituta badabil, ideiarik be ezin dogu egin zelan dagoan bere etxean. Pentsa zelakoa izango dan bere etxeko egoerea, ara joan baiño naiago badau Iñakik lantokian gelditu: jasaneziña baiño jasaneziñagoa.

- Manuuu!!! Bagoaz beko tabernara kañatxo batzuk artzera? - galdetu deutso Iñakik, Manuri, bere lande aspergarriari eta barrilapikoari.

- Bai, Iñaki, goazen ba berandu egin orduko.

Biak tabernarantza doazela, Iñaki pentsaten ari da bere bizitzea zenbat aldatu dan azken urte erdian.



- Ixillik zoaz, Iñaki, ba! – Manuk.

- Bai, buruan ainbat gauza darabildaz egunotan eta... Baiña kasurik bez arazoei. Ontxe artuko doguz gure kañatxoak eta atsekabe guztiak alde batean itxiko doguz, ezta?- bere burua animatu gurean.

- Bai, laguna!


Laguna! Laguna! – Iñakik bere barrurako -. “Laguna” diñost kokolo onek, au nire laguna iñondik iñora ez bada! Kontakatillu ganorabakoa! – Iñakik ixillean bere buruari.

Eta orrela zan. Iñaki eta Manu ez dira izan iñoiz lagunak. Alkarri gorrotorik ez badeutsoe ere, lagunak ez. Manu beti ebillen kuxkuxean. Aren barri, onen barri eta danen barri ekian. Iñaki orregaitik ibiltzen zan Manurengandik urrun. Justua baiño ez eban kontaktzen bere aurrean, badaezpada ere. Alanda be, bera zan lanetik etxera artez joaten ez zan bakarra eta Iñakik be etxerako gogo gitxi agertzen eban lez azken illeotan, beragaz batzen zan, tabernan zeozer artze- k o

asmotan. Iñaki alegintzen zan bere aotik berba justuak ataraten Manuren aurrean, baiña askotan, alkolaren eraginez edo, bear ez diranak be esaten ebazan eta gero orren ondorioa jasan bear izaten eban, gaurko moduan.

- Zelan zure bikotxak, Iñaki? Lan andia emoten? Ja, ja, ja, ja...

Orain urte erdi, Iñakik ez eutson itziko Manuri orrelako ironiagaz ezelako galderarik egiten, eta gitxiago bere bizitzeari buruz; barriz gaur egun, bere egoeran, bere buruari barre egingo



## Ipuin sariketa

baleutso ere, ez leuskio ezer esango. Orretarako adorea galduta eukan Iñakik.

- Bikotxak, Manu, osasunez neu baiño be obeto, baiña, bai, egia, lan eta lan gabiltza Itziar eta ni.

Iñakiren bikotxak, Maider eta Enekok, sei illabete daukez. Jaio diranetik Itziarrek, Iñakiren emazteak, eta Iñakik gauetan ordu bete jarraian be ez dabez begiak izten. Itziarrek bere lanean urte beterako eszedentzia artu dau eta egunez, beintzat, umeak lo dagozenezan berak be lotaldia egiten dau, baiña Iñakik ez, ezin dau. Lorik egin barik doa lanera eta lanetik urteten dauanean eta etxera eltzen danean, Itziarrek umeei askaria emotea agintzen deutso. Gero eurekaz olgau bear dau Iñaki gizajoak, bere emazteak etxeko lanak egin daizan. Orren ostean, Itziar umekaz egun guztian egoten nekatuta dagoan lez, Iñakik baiñau bear dauz. Ori bai, lotara joan aurreko biberioia Itziarrek emoten deutse.

Bitartean Iñakik afaldu egiten dau eta oeratu orduko zigarro bat erre. Au da Iñakirentzat eguneko momenturik gozagarriena.

Esandako guztia egunero, egunero, egunero eta egunero errepikatzen da. Iñakik ezin dau geiagorik jasan. Bere bizitza aspergarria irudituz gain, nekatuta dago. Lorik egin barik dabil bere seme-alabak jaio diranetik. Edozein lekutan artzen dau loak. Ikaraz gidatzen dau, loak artu

eta zeozeren kontra jo eta bertan ziku gelditu barik. Pozik dago bere umetxoekaz eta itziarregaz be, egia esan, ondo konpontzen da, baina egoera nekagarri onek gaitxotuko daualakoan dago. Orregaitik erabaki bat artu bear dau lenbailen. Nekaldi onetatik konortera etorri arte gurasoen etxera bizitzera joateko asmoa agertu bear deutso Itziarri. Azken asteotan ori darabil buruan Iñakik, baiña ez daki zelan esan bere emazteari.



ko adorea artuz, itziarri bere gogoia adierazi bear deuto.

Manu kuxkuxean dabilen bitartean Iñaki buru-belarri bere pentsamentuetan sartuta dago, lankidearen txutxumutxuei jaramonik egin barik.


Iñakik, bere lankideari agur esanez, kotxean sartu eta etxerako bidea artu dau. Etxeranzko bidean Itziarri esango deutozan berbak kontu andiz aukeratzen dabil, euren artean txarto-ulerturik egon ez daian.

Eldu da etxera, atea ireki eta barrura doa Iñaki. Emazteari eta seme-alabei mosu bana emon eta aurrera doa bere asmoa adieraztera.

- Itziar, laztana, zu ez dakit egunotan zelan zabilzen, goizerik gauera umeekaz, lorik be egin barik, baiña ni, neu, egoera...

Amaitzen be ez deuto itzi Itziarrek senarrari.

- Bai, biotza, errazoia daukazu. Au ez da itxaroten genduana. Seme-alabak eukitea gauza andia da, baiña nik azkenatan uleak orrazteko aztirik be ez daukat, niri apaintzea gustaten jatan bestegaz... Beste emakume batzun atzetik joango jatzuz begiak, ezta? Normala, gizona, ni ikusita egun guztian koleta bat jarrita, aurpegian kolore barik eta amantala beti aldean! Egon naz pentsatzen egun batzutarako neure gurasoenera joatea. Indarra artu bear dot eta neure itxurea errekuperatu eta orretarako zer obeto, gizona, apur bat eguneroko zeregiñetatik urruntzea baiño? Zuk beintzat zeure lana daukazu errutina onetatik urteteko, baiña nik? Aste beterako maletea prestatu dot. Zu, Iñaki, lasai egon, dana itzi deuto prest eta. Kajoi onetan dagoz umeen fardelak, bestean...



# Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XXI)

## Bigarren itsasaldiko edestitik datorrena.

1.494an Lorailaren 3an Kolonek Jamaikako ugartera joateko bidea artuta, eta Lorailaren 13an eldu zanean bertokoakin eztabaida batzuk eukinda, oster a joan zan Kubarantza, bidean 14ko egunean eltzen egon zanean ugartedi eder bat aurkituta, “Erregiñaren Lorategi edo Baratza” deitu eutson ugartedi oneri, eta 164 ugarteraiño zenbakitu ebazan Kolonek Guakanayaboko kolkoaren bazter areitan.

Bertokoak Amonaren<sup>(1)</sup> izenagaz deitzen eutsoen ugarte parean egon ziranean, Kolon oso gaisorik geratu zan, eta ainbat egunetan egon zan ilbizian konorte barik.

1.494an Bagillaren 7an Portugal eta Gaztelako eztabaidak bakezteko, Tordesillaseko itunean erabagi zan munduaren goiko ta beko aldeak bien jabetasunerako eguerdi-lerrotik<sup>(2)</sup> banatzea, Aita Santuaren Buldari jaramon egin barik.

1.494ean Iraillaren 29an Kolon gaisorik egoala eta Kolonen urren-go agintariak bideratuz, bost illabete barru eldu ziran Isabela ugarte-



ra, eta bertan euki eben Kolontar Bartolome, Kristobalen anaia itxaroten.

Kolontar Kristobal osatu zanean, bere anai Bartolome agintaritzan sendotzeko, jaurlari ta gudalozteko agintari nagusia izendatu eban, bere agindupekoen artean ez ebena ontzat artu, eta gitxiago errege katolikuak, euren ardurazkoa izan zalako ordezeko agindu orreien izenak ipinitea.

Kolontar Diegorentzat be gaiztotu egin ziran egoerak, bere agindupeko Margaritetar Pedro eta beste batzuk Boiltar Bernardo lekaideagaz, matxinatu egin ziralako, eta lortu be, Bartolometar Kolonek eroan ebazan iru itxasontziakaz peninsularantza alde egitea, an euren artean sortzen ziranak errege katolikuari esateko.

(1) Bertoko jendeak Amonaren izenagaz deitzen eutsoen ugarte orreri, eta kristauak MONA. (2) Eguerdi-lerrotik = linea meridional del globo.



1.494ko Urrillan Torrestar Antonio eldu zan indiaseko ugarteetara, Koloneri errege katolikuaren agiri bat emonda, Koloneri oarrerazten, erregeak zelan jakin eben an gertatzen ziranak, eta bai 1.494ko Bagillaren 7an Tordesillaz Potugaleko erregeekin alkartuta artu ziran erabagi bidetik, zelan 370 leko ori-urdiñeko lur muturraren mendebaletik, mugatuta geratzen zirala Gaztela ta Portugaleko jabetzak, Kolonen agindupeko nagusiari oartuz, on artu egiezala Kolonek euren izenean agintzen eutsoen guztiagaz.

1.495eko Epaillaren 24an Kolontar kristobal ta bere anai Bartolomek 200 oiñezko gudari,

20 zaldunezkoak, eta erasorako erakutzita 20 txakurrekin urten eben Isabelatik, Kaonabo indiar jauntxoak, euri ango ugarteetatik botateko antolatzen egoanari, aurka egiteko.

Eta Ojedatar Alonso izan zan Kaonabo erregea arrapau egin ebana, bere almenean euki ebazan maltzurkeri guztiakaz.

1.495eko Urrillan, errege katolikoaren aginduz, Aguadotar Juan eldu zan Isabelaren ugartera Kolon aipatu barik, eta Kolonek jakin ebenean bera ikustera joanda, Aguadotar Juan

onek, erregeak jakinean egon zirala an gertatzen ziran gauzakaz adierazi eutson, eta ez zirala erregeak pozik egon berak egiten ebazanakaz esan ondoren, au izan zan lenengo estu-aldia errege ta Kolonen artean.

Kolonek ez eban bitan oldoztu zer egin bear ebena, eta bereala asi zan etorteko bidai bat antolatzen, erregeakaz egoteko.

Baiña itxasontziratzeke egon zanean, aizezar edo aizebeltz zakar bat agertuta, ugarte guztia ondatuz gain, kaian egon ziran lau itxasontziak urperatu egin ebazan.

Ugarte orretan itxasontzi barik agertuz, Kolonek karabela bi egitea agindu eban, eta bere anai Bartolomei, Isabelako erria bertan itzita, ugarteko leku ezberdiñetan gazteluak eraiki egiazala agindu eutson.

Kolonek, espainolaren ugartetik urteteko egon zanean, bere anai Bartolome itzi eban ango orokorrezko jaun nagusi lez, eta Kolontar Diego, Bartolomeen ordezkioak, bere morroi izan zan Roldantar Frazizko, Isabelako alkate nagusi lez ipini eban.

1.496ko Epaillaren 10ean urten eben Dominika edo espainolako ugartetik karabela biak, Kolon batean eta Aguadotar Juan bestearen aginduan, guztiz 225 gaztelar eta 30 indiar eroaten ebazan, eta onen artean ainbat gaiso eta an gertatzen zanakaz pozik ez ziranak egon erregeari idatzita, onek baimena emon ondoren, euren etxera joaten ziranak egon ziran, eta itxasontzien agintariak ontzi-zama edo ontzikada orregaz bide zuzena artu barik, antillaseko ugarte txikerretara artu eben bidea, Marigalante ugartera joateko.

Aizearen ezagaitik, ia illabete baten luzatu jakien, denbora gutxian egin bear eben lenengo geraldori, Jorraillaren 10ean Guadalupeko ugartera elduta.

1.496ean Jorrailaren 20an indiar emearen aldetik larritasunezko eraso gogor ta egoeraren estu alditik urtenda, ura ta bear ebezanak itxasontzietara igon da gero, ostera itsasoratu ziran peninsula onetara etorteko.

1.496ko Bagillaren 11n eldu ziran Kadizeko kaiara iru illabetetan itsasotik ibili ondoren “Niña ta India” karabela orreik, mariñel geienak, buba, lotseri edo andramin gaitzaldiakaz gaisotuta.

Kolon, Kadizeko kaiara eldu zanean, beste irten-aldi bat egon zan kaitik urteteko, abel-buru batzuk eta indiasetan eurentzat bear ebenagaz itxasontzietara igoten, janariagaz ondo ornituta joateko, eta Kolonek aukera onegaz baliatuta, bere anai Bartolome-ri agindu batzuk bialdueutsozan.

Ontzidi talde ori urten ebenean, Kolon Sebilara joan zan frantzizkano jantzita, ta beragaz indiar batzuk, papagai poli ta ederrak, bero-aldeko zitu, ale edo igali batzuk, urre-gorria, eta Kaonabo erregearen anaia Don Diegoren izenagaz bateatu ebena, buruan lumak eta sama edo ta lepo-gibelean urre-gorritzko lepokoa, 600 gaztelarreko astuntasuna euki ebana<sup>(1)</sup>.

Denboraldi bat itxaron bear izan eban Kolonek erregeak artu egian, onek euren seme Juan Austriako Margaritagaz eta Juana Austriako Felipegaz ezkontzeko lanpetuta egon ziralako.

(1) *Gaztelarrak = castellano, o moneda antigua de oro, que equivalia a la cincuentaava parte del marco de oro.*

Erregeak eskutitz bat bialdu eutson Koloneri, Burgo-serantza joan zedin, erregeñak an artuko ebala esaten ebanak.

1.496ko Dagonillaren 8an Koloneri, Burgoseko urian egon zala, eskerroneko eskutitz bat bialdu eutson I Isabel erregeñak, erregeak guztiz arduatuta egon ziranean Flandesetik etorten zan ontzidia Austriako Margarita printzeagaz itsasketa zakar baten erdian atrapauta geratu ziranean.

-Kolonek larritasun andiko estutasunetan sartuta egon zala ontzidi ori jakin ebanean, beren izeko-osaba erregearen nekagirotaki larritasunagaz oartu ta arduratuta, argibideko paper bat erregeari bialtzea erabagi eban, zer gertatuko zan eta zelan egingo eben ontzidi orren itxasontziak etorkerako bidai ori esaten.

-Eta itxasontzi orreik ezer gertatu barik, euren kaira eldu ziranean, I Isabel erregeñak, eskerronekua agertu zan Kolon bere lobagaz, “Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko Bigarren errege ta gizon jakintsua” deitu eutsonean, idatzi eutson eskutitzan.

Emen, gero ta argiago agertzen da Kristobal eta erregearen senidetasuna, Kolonen aldetik bigarren bidaia egin ebenean eta erregeari oar-idatzi bat bialdu eutsoenean, Torres tar Antoniori esanda: *“me encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores naturales”* eta erregeñak *“Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko Bigarren errege” ta gizon jakintsua deitu eutsoenean.*


1.497ko Jorraillaren 23an Juan, errege katolikuaren semea, Austriako Margaritagaz ezkondu ondoren eta egun batzuk barru, erregeak Koloneri baieztu eutsoezan Santa Fe’ko ongundean izenpetu eutsoezan izendatuko eskubide guztiak, bai eta eskubide guzti orreik bere sendian, ondorengotasunezko etxaguntzan iraun egiazan.

Errege katolikuak geiago be emon eutsoen Koloneri, 1.495ean berak eskatu ebenean bidai-aldi bakotzetik zortzirena ordaintzea, ararte ordainduta emon ziranak, irabaziak baiño askoz geiago izanda parkatu egin eutsoelako, eta bai bere anai Bartolome, indiar ontzidiaren agintari nagusia izendatu ebenagaz.

Gertakizun onen ostean, ostera asi zan irugarren bidaia antolatzen.

Arazo askokin aurkitu zan Kolon bidai onen bear bearrezko antolakuntzak beteteko, erregeak leen Frantziagaz gudan





egonda eta Juan semea ta beste alaba Juanaren ezkontzakaz diru barik geratu ziralako, leen.

Bigarren, gorteko nagusien bekaizkeri zitalak zalantzan ipinten ebelako berak egiten eban guztia.

Eta irugarren, emen agertuko diranakaz, ia urte bi bear izan ebelako antolakuntza orreik amaitzeko.

1.497ko Urrillaren 4an 19 urte eukazala il zan Juan errege katolikuaren semea.

1.498an Otsaillaren 18an, I Isabel erregiñ katolikuak, Kolonen seme Diego ta Fernando artu ebazan bere serbitzura, bakotzari 9.700 maraurien lan-sarituagaz.

### **Irugarren itsasaldia.**

1.498ko Loraillaren 30ean Kolonek bere bost itxasontzi bardiñ antzeokakaz, 100 tonako itxasontzi aundi bat, 200 gizon eta mariñelekin urten eban Barramedako Sanlukarretik, Bagillaren 7an Porto Santorara elduta, aldikada baten bere emazte Moniztar Filipagaz bizi zan lekua zana, ta andik iru egun barru Madeirako ugartera, eta emen sei

egunetan ura ta bear zirenak itxasontzietara igonda, Bagillaren 16an Madeiratik urtenda, Kanariaseko ugartedirantza joan ziran eta Bagillaren 19an Gomerako ugartera eldu ziran.

Kolon, Gomerako inguruan egon zanean, kaian itxasontzi frantzez bat egoala oartu zan, eta jakinda Gaztelako itxasontzi batzuk baitu ebazala, bere atzean joanda askatu ebazan eroaten ebazan gaztelar mariñel guztiak.

1.498an Bagillaren 21ean Kolonek indiasetara joateko asmoan, Gomeratik urten orduko, erdibitu egin eban ontzidia, iru itxasontzi espainolako ugartera bialtzeko, bere anai Bartolomeri, eroaten eutsezan janarizko ta bear ebazan orni-aldiak emoteko.

Onen iru itxasontziko baten agindua, Arantzar Pedrok euki eban, Kolonen Fernando bigarren semearen ama Enrikeztar Beatrizen neba zanak.

Kolonek bere beste iru itxasontziekin egoalderantz urtenda, ori-urdiñeko lur muturraren ugartedirantza bideratu zan, mundu onen lur-gerriko lerroa aurkitzen, gero mendebalerantz joateko,

Dominikako ugartearen iparraldean geratu arte, lur aiek bertoko indioaren gora beran, orain arte ezagutuak baino askoz aberatsagoak ziralako.

1.498ko Bagillaren 23an gaztelarren gorteko agirietan, Kolonegaz sekula ez zerala Jenoba izen ondokorik<sup>(1)</sup> erabili, agiri orreik begitutea baino ez dago, danetan “arrotza”ren izen ondokoagaz agertzen diralako.

Gaztelako gortearen agiriak, beti joaten ziralako bakoitzaren aberriari deritson izen-ezagun bereziakaz: “veneciano, florentino, genoves, frances, catalan” eta abar.

Eta onen argibidea erakusteko ez dago besterik, Gonzalez eta Pueblatar Ruyk Londreseko errege katolikuaren ordezkariak, Kabot´tar Juanen bidaldia aipatuz, aurei bialtzen eutsion eskutitza begitutea baino: “Inglaterrako erregeak, bost guda-ontzi bialdu dabezala Kolon bezelako beste jenobes baten agindutara, Brasilgo ugarte ta bere beste bost uri nagusiak aurkezteko”.

Erregearen erantzunean: “Esaten dozunagaitik, ara, Kolon bezelako bat bialdu dabela Ingalaterrako erregea indiaseko beste irabazpide antzeko baten ipinteko”.

Errege katolikuaren ordariak esaten dau: “Kolon bezelako beste jenobes bat bialdu dabela”

Eta errege katolikuaren erantzunean: “Kolon bezelako bat bialdu dabela” esanda, jenobeseko itza desagertzen da, eta agirizko idatz oneik erakusten dabe, Kolon, zelan ez zala jenobako semea.



Gauza guzti oneik ikusita, badauka garrantzi aundia, Kolonen izenak euki dabezan aldakuntzak.

1.498an Bagillaren 27an eldu ziran ori-urdiñeko lur murrera, eta Portugaleko legendun edo legenartsuak<sup>(2)</sup> osatuten joaten ziran Buenabistako ugartearen egun batzuk egin ondoren, ugartedi eretan egon zan Santiago ugarte aundienera joan ziran.

**Atutxa´tar Paul**

**Zornotza´n 2.015´eko urtean Epailla´ren 21´ean**

(1) *Izen-ondokorik = adjetivo.*

(2) *Legendun edo ta legenartsuak = leprosos.*

# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsak



## Sudoku

5		2		6		9	1	
	4	6						
			2					7
8		5	6					
2			4		1			6
					9	5		3
1				7				
						2	3	
	6	9		4		1		8

8	7	1	2	4	5	9	6	3
9	3	2	8	6	1	7	5	4
5	6	4	7	3	8	2	1	9
3	4	9	8	7	3	6	5	1
6	1	4	8	7	9	5	2	3
2	7	3	4	5	1	8	9	6
8	9	5	6	2	3	7	4	1
9	8	1	2	3	4	6	5	7
7	4	6	9	1	5	3	8	2
5	3	2	7	6	8	9	1	4

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, .....errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Gure Ama Birjiña  
Arantzazukoa  
laguntzalle ona da ta  
danon gogokoa.

Arantzazun dagoan  
santa ta santuak  
beti izaten ditu  
kanta ta kantuak.

Arantzazu mendiko  
krabelin gorria.  
Neskatxa muxu gorri  
engainagarria.

Arantzazu mendiko  
paguaren onduan  
Birjiña Santisima  
nedukan goguan.

Arantzazutik nator;  
auxe nere poza;  
antxen ikusi bai det  
pralle kaskamotza.

**Arantzazu**